| 2012KO URRIAREN 30EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 30 DE OCTUBRE DE 2012. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| ALKATEORDEAK | TENIENTES DE ALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ/PNV)
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV)

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Itziar Epalza Urkiaga (EAJ/PNV)
Marisa Arrue Bergareche (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Jesús Toca Toña (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Javier Ruiz Egaña (PP)
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP)
Fco. Javier Elorza Hormaeche (PP)
Ana Basilio Carnicer (PP)
Maitane Nerekan Umaran (BILDU)

Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU)
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU)
Roberto Martín Prieto (BILDU)
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE))
Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE))

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko bostetan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diecisiete horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**117.- 2012KO IRAILAREN 25EAN GETXOKO UDALBALTZAK EGINDAKO AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**117.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE SEPTIEMBRE DE 2012.**

2012ko irailaren 25ean Getxoko Udalbatzak egindako aurreko ohiko bilkuraren Akta onartu zen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 25 de septiembre de 2012.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**118.- 2012KO 3. HIRUHILEKOKO AURREKONTUAREN BURUTZAPENAREN BERRI EMATEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Eduardo Andrade jaunak hitza hartu eta adierazi du 3. hiruhilekoko aurrekontu exekuzioaren egoera hau 2011. urteko hiruhileko berberarekin konparatzen bada, gastu korrontea bakarrik %2an murriztu dela. Horrek esan nahi du ez dela ez zarrastelkeria kontrolatu ezta herstura irizpideak ezarri ere, irabazten den baino gehiago gastatzen baita, hots; 100 euro bakoitzetik 90 aberastasunik sortzen ez duen gastu korronterako erabiltzen dira. Badirudi gobernu taldeak ez duela neurririk hartu Udalkutxatik jasotako diru-kopuruak itzultzeko aurreikuspenaren aurrean, ezta hurrengo urteetarako aurreikusi den ekarpen txikienaren aurrean ere. EAJ alderdiak herstura planik aurkezten ez duen bitartean, dirua antzoki berrian inbertitzen jarraitzearekin tematuta dago, nahiz eta irekitzeko aukerarik egongo ote den ez jakin, antzokia funtzionamenduan jartzeak urtero eragingo duen 10 milioietako kostuari aurre egiteko baliabide nahikorik ez egoteagatik.

17:05 direla, publikoaren alderdi batek bilkura eten egin du langile publikoei egindako murrizketen aurkako aldarrikapenak adieraziz. Sortutako egoera dela eta, alkateak agindu du bilkura eten egin dutenak aretotik kanpo ateratzea. 17:15 direla bilkurari ekin egin zaio berriz.

Andrade jaunak hitzarekin jarraitu eta adierazi du inbertsioak %58an jaitsi direla iazko aldi berdinarekin

**118.- DACIÓN DE CUENTA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 3º TRIMESTRE DE 2012.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade que manifiesta que si se compara este estado de ejecución presupuestaria del 3º trimestre con el mismo trimestre del año 2011, el gasto corriente se ha reducido únicamente en un 2%, lo que significa que no ha habido control del despilfarro ni criterios de austeridad, ya que se gasta más de lo que se ingresa, 90 de cada 100 euros se destinan al gasto corriente que no genera riqueza. Se ve que el equipo de gobierno no toma medidas ante la previsión de devolución de cantidades recibidas de Udalkutxa y la menor aportación que se preve en los próximos años. Mientras que el PNV no presenta un plan de austeridad sigue empeñado en invertir dinero en el nuevo antzoki que no se sabe si va a poder abrirse por falta de medios para hacer frente a los 10 millones de coste anual que supondrá su funcionamiento.

Siendo las 17:05 minutos parte del público interrumpe la sesión gritando consignas contra los recortes a los empleados públicos. Ante la situación creada el alcalde ordena desalojar la sala a los que han interrumpido la sesión. Siendo las 17:15 se reanuda la sesión.

Continua interviniendo el sr. Andrade que manifiesta que las inversiones se han reducido un 58% respecto al mismo

konparatuz eta horiek bakarrik Getxo antzokirako erabili direla. Bestalde, Gizarte Jarduerako Sailak bere gastua %3,43an jaitsi du, eta bakarrik Kultur Sailean igoko da, batez ere jaietan eta euskalduntze jardueretan. Diru-sarrerei dagokienez, horiek jaitsi egin dira ekonomia jarduera faltarengatik eta bere ustez, egin behar dena da dirua ekonomia jardueren alde egiteko gastatzea eta gizarte sailetatik eratorritako gastuei aurre egitea. Amaitzeko, esan du jaitsi egin direla Behargintzan eta merkataritzaren alde egiteko erabilitako diru-kopuruak.

periodo del año pasado y que únicamente se han limitado al Getxo Antzokia. Por el contrario, el Área de Acción Social ha bajado su gasto en un 3,43% mientras que únicamente se incrementa en el Área de Cultura, sobre todo el gasto en fiestas y en euskaldunización. En relación a los ingresos, estos se ven reducidos por la falta de actividad económica y entiende que lo que hay que hacer es gastar dinero en apoyar las actividades económicas y en hacer frente a los gastos derivados de las áreas sociales. Finaliza manifiestando que han bajado las cantidades dedicadas a Behargintza y en apoyo al comercio.

Ana Helguera andreak dio aurrekontu exekuzio partziala ez dela likidazio bat eta konparazioak egin nahi baditu, horretarako egokiak diren datuak eskatzeko adierazi dio. Aipatu du dagoeneko 66 milioi sartu direla eta gastua 56 milioietan onartu dela. Horrek suposatzen du ez dela defizit sortuko eta gainera, gastu horretan, inbertsioak bost milioi eurotan ere hartu direla barne. Azpimarratu du gastuen artean oso garrantzitsuak direla garbiketa zerbitzuen mantenurako, zabor bilketarako, lorezaintzarako, etab. erabilitakoak. Merkataritzaren gastuari dagokionez, horren alde egiteko partida berezian ez da dirurik gorde, luzatutako aurrekontua denez, partida hori ez da luzatu, eta kritikatu du aurrekontu hori luzatu egin dela aurrekontu bat ontzat emateko laguntza nahikorik agertu ez delako.

Ana Helguera indica que la ejecución presupuestaria parcial no es una liquidación y si quiere realizar comparaciones le pide que solicite los datos oportunos para ello. Manifiesta que se llevan ingresados 66 millones y reconocido el gasto por 56 millones, lo que supone que no se va a generar déficit y además en ese gasto se incluyen también inversiones por valor de cinco millones de euros. Destaca que entre los gastos son muy importantes los dedicados a mantenimiento de servicios de limpieza, recogida de basura, jardinería, etc. En relación al gasto del comercio en la partida de apoyo especial al mismo es cero porque al tratarse de un presupuesto prorrogado esta partida no se prorroga, criticando que la situación del presupuesto prorrogado es por la falta de apoyos para poder aprobar un presupuesto.

Andrade jaunak erantzun dio eta adierazi du kezkatuta dagoela merkataritzaren alde egiteko dirurik ez egotearekin, eta aipatu du bere alderdi politikoa merkataritza jardueraren alde

El sr. Andrade replica, manifestando su preocupación de que no exista dinero para apoyar al comercio, e indica que su grupo político está dispuesto a apoyar cualquier tipo de medidas que

egiten duen edozein neurriren alde egiteko prest dagoela. Errepikatu du 100 euro bakoitzetik 90 aberastasunik sortzen ez duen gastu korronterako erabiltzen direla.

favorezcan a la actividad comercial. Insiste en que 90 de cada 100 euros se dedican al gasto corriente que no genera riqueza.

Ana Helguera andreak erantzun dio esanez, nahiz eta gasturik ez egin merkataritzaren ohiz kanpoko planaren partidako pentzura, horrek ez duela esan nahi beste partidetatik ez dela gasturik egin haren alde egiteko. Bere ustez, alderdi politiko bakoitzak bere lehentasunak ditu eta nahiko garestiak diren udal zerbitzuen jarduera mantendu behar dela eta nolabaiteko kalitate maila lortu nahi bada, zergak igo behar direla nahita nahiez.

Ana Helguera contesta indicando que, si bien no se ha gastado nada con cargo a la partida del plan extraordinario de comercio, esto no quiere decir que no se hayan realizado gastos para apoyar el mismo desde otras partidas. Opina que cada grupo político tiene su prioridad y es necesario mantener la actividad de los servicios municipales que cuestan bastante dinero y si se quieren mantener ciertos niveles de calidad es obligatorio subir los impuestos.

Andrade jaunak erantzun du ez direla zergak igo behar, egin behar dena kulturan eta jaietan diru gutxiago gastatzea eta gastua ekonomia eta gizarte gastua lehenera ekartzeko bideratzea dela.

El sr. Andrade replica que no es necesario subir los impuestos, que lo que hay que hacer es gastar menos en cultura o en fiestas y orientar el gasto a la recuperación económica y el gasto social.

Ana Helguera andreak nabarmendu du kultura aurrekontuak batez ere udalak Kultur Etxeari egindako ekarpenak islatzen dituela eta bere ekintzak ere kontuan hartu behar direla. Adierazi du ere Behargintzako gastua murriztu egin dela, Lanbide sortzearen ondorioz.

Ana Helguera matiza que el prespuesto de cultura refleja fundamentalmente las aportaciones del ayuntamiento al Aula de Cultura y que sus actividades también deben ser consideradas. Manifiesta también que se ha rebajado el gasto en Behargintza como consecuencia de la creación de Lanbide.

Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

2012ko ekitaldiaren hirugarren hiruhilekoari dagokion Aurrekontua Egikaritzeko Egoeren jakitun geratzea, eta haren dokumentazioa erreferentziazko espedientean jasotzen da.

Darse por enterados de los Estados de Ejecución Presupuestaria correspondiente al 3º trimestre del ejercicio 2012 cuya documentación consta en el expediente de referencia.

**119.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ BALIATUTA ALDARAZI.**

Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki da:

Kreditu osagarriaren bidez, aurrekontua aldatzeko ondorengo dekretuen jakitun geratzea:

2012ko irailaren 24eko 4656 Dekretua, 255.000,00 eurotan

2012ko urriaren 4ko 4888. Dekretua, 142.564,02 eurotan
2012ko urriaren 15eko 5016. Dekretua, 115.865,91 eurotan.

**119.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

Quedar enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

Decreto nº 4656 de 24 de septiembre de 2012 por un importe de 255.000,00 euros
Decreto nº 4888 de 4 de octubre de 2012 por un importe de 142.564,02 euros
Decreto nº 5016 de 15 de octubre de 2012 por un importe de 115.865,91 euros.

**120.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.**

Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki da:

Transferentziak erabiliz, aurrekontua aldatzeko ondorengo dekretuen jakitun geratzea:

2012ko irailaren 24ko 4708. Dekretua, 20.033,38 eurotan

**120.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

Quedar enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

Decreto nº 4708 de 24 de septiembre de 2012 por un importe de 20.033,38 euros

2012ko irailaren 24ko 4709. Dekretua, 40.700, eurotan

Decreto nº 4709 de 24 de septiembre de 2012 por un importe de 40.700,00 euros

2012ko irailaren 24ko 4716. Dekretua, 3.399,00 eurotan

Decreto nº 4716 de 24 de septiembre de 2012 por un importe de 3.399,00 euros

2012ko urriaren 4ko 4872. Dekretua, 5.901,00 eurotan

Decreto nº 4872 de 4 de octubre de 2012 por un importe de 5.901,00 euros

2012ko urriaren 16ko 5147. Dekretua, 35.000,00 eurotan

Decreto nº 5147 de 16 de octubre de 2012 por un importe de 35.000,00 euros

2012ko urriaren 17ko 5187. Dekretua, 475.000,00 eurotan

Decreto nº 5187 de 17 de octubre de 2012 por un importe de 475.000,00 euros.

**121.- 5172/2012 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA, KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

**121.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 5172/2012 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

Kredituak gaituta aurrekontua aldatzen duen dekretu honen berri ematea:

Quedar enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

2012ko urriaren 17ko 5172 Dekretua: 39.051,04 euro.

Decreto nº 5172 de 17 de octubre de 2012 por un importe de 39.051,04 euros.

**122.- UDAL-DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENA ETA KONTU-HARTZAILE OROKORRAK EGINDAKO FAKTUREN ZERRENDA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARRENA.3 ETA BOSGARRENA.4 ARTIKULUETAN XEDATUTAKOA BETEARAZIZ (2012KO 3. HIRUHILEKO).**

**122.- INFORME TRIMESTRAL DE LA TESORERA MUNICIPAL Y RELACIÓN DE FACTURAS EMITIDA POR LA INTERVENTORA GENERAL EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN LOS ARTÍCULOS CUATRO.3 Y QUINTO.4 DE LA LEY 15/2010 (3º TRIMESTRE DE 2012).**

Proposamena irakurri ondoren, Eduardo Andrade jaunak azalpenak eskatu ditu, epearen barruan ordaintzen ez diren fakturen kopuruak gora egiten jarraitzen duelako. Gogoratu du uztailean zegoeneko azalpenak eskatu zituela eta esan zitzaiola une horretan egoeraren araberako arazo baten ondorioz izan zela bakarrik, Kontu-hartzailetza aldatzetik eratorrita.

Tras darse lectura a la propuesta Eduardo Andrade pide explicaciones porque se sigue incrementando el número de facturas que no se pagan en plazo. Recuerda que ya pidió explicaciones el mes de julio y se le comunicó que en aquel momento se dio un problema puramente coyuntural derivado del cambio de la Intervención.

Ana Helguera andreak adierazi du ordainketak atzeratu egin direla udal sail desberdinak faktura ontzat ematea atzeratzen delako, ordainketa, faktura ontzat eman ondoren, ia unean bertan egiten baita. Gogoratu du ere zenbait faktura atzeratzen dela konpentsazioaren bidez ordaintzen direlako, Diruzaintzaren txostenean adierazten den bezala.

Ana Helguera indica que el retraso se debe a que se retrasa la aprobación de la factura por parte de las diferentes áreas municipales, ya que el pago, una vez aprobada la factura, se realiza casi de forma inmediata. Recuerda también que algunas facturas se retrasan porque se pagan por compensación tal y como figura en el informe de la Tesorería.

Andrade jaunak errepikatu du atzerapenaren arazoa denborarekin areagotzen doala eta azalpenak eskatzearekin batera konponbideak ematea eskatu du.

El sr. Andrade insiste en que el problema de retraso se va agravando con el tiempo y a la vez que pide explicaciones solicita que se aporten soluciones.

Ana Helguera andreak azaldu du atzerapena eragin dela, besteak beste, udan ezin izan direlako oporretan zeuden langileak ordezkatu, Alderdi Popularreko gobernuaren neurri murritzaileen ondorioz.

Ana Helguera explica que el retraso, entre otras cosas, se debe a que en verano no ha podido sustituirse al personal en vacaciones por las medidas restrictivas del gobierno del Partido Popular.

Andrade jaunak gogoratu du ordezkapenei buruzko alkatearen dekretu bat badela eta hurrengo hiruhilekoaren exekuzioa ikustearen zain dagoela, non udako ondoriorik egongo ez den.

El sr. Andrade le recuerda que existe sobre las sustituciones un decreto del alcalde y que espera ver la ejecución del próximo trimestre en el que ya no hay efectos del verano.

Proposamena bozkatu ondoren, hurrengo emaitza lortu da: 10 boto alde, EAJ; 14 abstentzio, PP, Bildu eta PSE-EE.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 10 votos a favor, PNV; 14 abstenciones, PP, Bilbu y PSE-EE.

Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

LEHENENGOA: Udal Diruzaintzaren hiru hilez behingo txostenaren eta 2012ko hirugarren hiruhilekoari dagozkion Kontu-hartzaileak egindako fakturen zerrendaren jakitun geratzea, uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4.3 eta 5.4 artikuluetan xedatutakoa betez landutakoak, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatu duena. Haren bidez, merkataritza operazioetan berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dira.

PRIMERO: Quedar enterados del informe trimestral de la Tesorera Municipal y de la relación de facturas emitida por la Interventora correspondientes al 3º trimestre del año 2012, elaborados en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos cuarto.3 y quinto.4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

BIGARRENA: Txosten horiek udalaren webgunean argitaratzea.

SEGUNDO: Publicar en la página web municipal los citados informes.

**123.- ONDASUN HIGIZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA, 2013 URTEA.**

**123.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES, AÑO 2013.**

Proposamena irakurri ondoren, alkateak hitza hartu eta adierazi du, bozeramaileekin adostutakoarekin bat eginez, gai-zerrendaren puntu honetan alderdi politiko desberdinen jarrerak adieraziko direla, ordenantza fiskalen aldaketei dagokienez.

Tras darse lectura a la propuesta interviene el alcalde para manifestar, como se ha acordado con los portavoces, que en este punto del orden del día se realizaran las posiciones de los diferentes grupos políticos en relación a las modificaciones de las ordenanzas fiscales.

Ana Helguera andreak hitza hartu du, eta gobernu taldearen izenean esplikatu ditu ordenantza fiskalak aldatzearen xedeak, honako hauek izanik: lehenengoa, udalak eskaintzen dituen zerbitzuen finantzazioan eta

Interviene Ana Helguera que, en nombre del equipo de gobierno, explica los objetivos que han motivado la modificación de las ordenanzas fiscales y que son, primero, avanzar en la financiación y sostenibilidad de los

iraunkortasunean aurrera egin, horien kalitatea mantenduz. Horrek nahita nahiez eskatzen du planteatutako zergak gorantz aldatzea. Bigarrena, udal zergen progresibotasuna areagotzea eta, hirugarrena, ordenantza fiskalak teknikoki hobetzea. Ibilgailuen zergari dagokionez, adierazi du ez direla igoko industria, merkataritza eta nekazaritza erabilerako ibilgailuen tarifak, eta gainontzekoei, berriz, KPI igoko zaie, motozikletak eta zilindrada handiko ibilgailuak izan ezik. Azken horiek igoera handiagoa izango dute. Gogoratu du zerga ez dela 2007ko urtarrilaren 1etik igo eta garai horretan KPI %15ean igo dela. Amaitzeko, esan du planteatu diren tarifak Bilbon edo Donostian daudenak baino baxuagoak direla. EJZri dagokionez, aplikatu den igoera KPIrena da, eta gogoratu du igoerak ez diela ez dendei ezta enpresaburu txikiei ere eragiten, 2 milioi euroetatik beherako fakturazioa baldin badute. EIOZri dagokionez, hobariak hartu dira barne bakarrik Osoko Bilkurak interes orokorreko obratzat jotzen dituen lanetarako. Gainbalioaren zergari dagokionez, adierazi du ez dela igoerarik eman, aldaketa tekniko hutsa baizik eta Higiezinen Ondasunen zergari dagokionez, ordenantzan ez da igoerarik adierazi eta iragarri du, halaber, udalak 2013. urtean 250.000 eurotako funts bat sortuko duela, diru-laguntzen bidez, gehien gutxietsitako sektoreei zerga hori ordaintzen laguntzeko. Esan du planteatutako igoeretatik eratorritako zerga-bilketa osoak, 250.000 euroetako funtsa deskontatuta, %1eko igoera suposatzen duela presio fiskalarekiko eta baita batez besteko 3,91 euroko igoera ere Getxoko bizilagun bakoitzarentzat. Gogoratu du ere zenbait urtez zergak blokeatu direla eta baita horiek jaitsi

servicios que presta el ayuntamiento, manteniendo la calidad de los mismos, lo cual exige las modificaciones tributarias al alza que se plantean. Segundo, aumentar la progresividad de los impuestos municipales y, tercero, mejorar técnicamente las ordenanzas fiscales. En relación al impuesto de vehículos indica que no se incrementan las tarifas de vehículos de uso industrial, comercial y agrario, al resto se le sube el IPC, excepto a motocicletas y vehículos de gran cilindrada, que tienen una subida superior. Recuerda que el impuesto no se ha subido desde el 1 de enero de 2007 y que en ese tiempo el IPC se ha incrementado en un 15%. Finaliza manifestando que las tarifas que se plantean son más bajas que las existentes en Bilbao o Donostia. Respecto al IAE, la subida que se recoge es la del IPC, recordando que no afecta a comercios y pequeños empresarios con facturaciones inferiores a 2 millones de euros. En relación al ICIO únicamente se han incorporado bonificaciones para obras que el Pleno declare de interés general. Respecto al impuesto de Plusvalía indica que no existe incremento sino una pura modificación técnica y en relación al impuesto de Bienes Inmuebles no se recoge incremento en la ordenanza y además anuncia que el ayuntamiento va a generar en el año 2013 un fondo de 250.000 euros para, vía subvención, ayudar a los sectores más desfavorecidos al pago del impuesto. Manifiesta que todo el incremento recaudatorio que se deriva de las subidas planteadas descontando el fondo de 250.000 euros, supone un incremento del 1% sobre la presión fiscal y un incremento medio a cada vecino de Getxo de 3,91 euros. Recuerda también que ha habido años de congelación de impuestos e incluso

egin direla ere. Ordenantzak izapidetzeari dagokionez, esan du alderdi popularrak ez zituela horiek negoziatu nahi izan eta orain hainbat zuzenketa aurkeztu dituela, baina horiek ezin direla onartu, udal jardueraren finantzazioa arriskuan jarriko zutelako, esparru mota orotan, gizartekoak, lanekoak, etab. barne. Amaitzeko, aipatu du alderdi popularreko jarrera (zergak hobarien bidez murriztea planteatu du), aurka jartzen zaiela estatu mailan hartzen dituen erabakiei, biztanle guztiei eragiten dien BEZaren igoera, besteak beste.

de rebaja de los mismos. En relación a la tramitación de las ordenanzas manifiesta que el grupo popular se negó a negociar las mismas y ahora presentan una serie de enmiendas que no pueden ser asumidas ya que pondrían en peligro la financiación de la actividad municipal en todo tipo de ámbitos, incluidos los sociales, de empleo, etc. Finaliza manifestando que la postura del grupo popular, que plantea reducciones de impuestos vía bonificaciones, es contradictoria con las decisiones que adopta a nivel estatal como la subida del IVA que afecta a toda la población.

Andrade jaunak hitza hartu eta adierazi du hauteskunde autonomikoak mozorro dantza bat izan direla eta horiek amaitu ondoren, EAJ eta Bildu alderdiek mozorroa kendu dutela zergak igotzeko, Getxoko bizilagun guztiei erasoz eta bereziki gehien gutxietsitakoei. Esan du Getxok ez duela zerga igoerarik behar udalak 40 milioi euro dituelako banku kontuetan, berankorrei kobratzeko dituen 7,7 milioi euroez gain eta 2011. urteko likidazioan 37 milioi euroetako soberakina egon zela. Gainera, udalak ez du gastu korrontea jaisteko ezer egin. Bere ustez, egokiena gastua arrazionalizatzea da, beharrezkoak ez diren gastuak saihestuz eta ez zergak igotzeak ez du zentzurik, gero horiek ordaintzeko diru-laguntzak sortzen badira. Bildu alderdiari eskatu dio ekitaldi honetarako onetsitako zergen igoerak eragindako diru-bilketa zertan gastatu duten azaltzea, bere ustez ez baita gizarte gaietan gastatu baizik eta loreetan eta lorategietan bakarrik. Finantzazio iturritzat Getxo Irratia ixtea planteatu du, 500.000 euroko kostua suposatzen duelako, hau da, sortuko diren laguntzen bikoitza. Trakzio

El sr. Andrade inicia su intervención indicando que las elecciones autonómicas han sido un baile de máscaras y que ahora que ha pasado PNV y Bildu se han quitado la máscara para subir los impuestos, atacando a todos los vecinos de Getxo y especialmente a los más desfavorecidos. Indica que Getxo no necesita una subida de impuestos ya que el ayuntamiento tiene 40 millones en cuentas bancarias, además de 7,7 millones de euros pendientes de cobro a morosos y en la liquidación del 2011 hubo un remantente de 37 millones de euros. Además el ayuntamiento no ha hecho nada por rebajar el gasto corriente. Opina que lo que procede es racionalizar el gasto, evitando gastos suplerfluos y que no tiene sentido subir los impuestos para luego generar subvenciones para el pago de los mismos. A Bildu le indica que manifieste en qué se ha gastado la recaudación que supuso el incremento de impuestos que aprobaron para el presente ejercicio, ya que opina que no se han gastado en temas sociales sino básicamente en flores y jardines. Plantea como fuente de financiación

mekanikoko ibilgailuen zergari dagokionez, %3,1eko igoera orokorra planteatu da, zenbait ibilgailu edo motozikletarako izan ezik. Azken horientzat %45etik gorako igoerak planteatuko dira. Horren aurrean, alderdi popularrak zerga honetarako hiru zuzenketa aurkeztu ditu, igoerak blokeatzeko eta ibilgailu hibridoetarako eta familia ugarietarako hobariak lortzeko. EJZri dagokionez, ez daude ados %3,1 igotzearekin, horrek enpresen lehiakortasunari eragingo diolako eta horiek dira lana sortu behar dutenak, beraz, horien egoera hobetzeko bederatzi zuzenketa planteatu dituzte. Onartzen du ez dituztela gainontzeko zergak igo, baina alderdi popularrak, zuzenketa bidez, planteatu duela foru arauak onartzen dituen hobariak barne hartzea, alegia; bereziki familia ugariei zuzenduriko hobariak, alderdi horri dagokionez, gobernu taldeak ez baitu familia horien egoera ekonomikoa kontuan hartzen, euren etxebizitzetako balio katastrala baizik, eta horrenbestez, diru-laguntza horiek ez dira operatiboak. Gogoratu du, halaber, gobernu taldeak bere gain hartu zuela Portu Zaharreko eraikinetako jabeak kontuan hartzeko konpromisoa eta urtebete igaro arren ez duela ezer egin. EIOZri dagokionez, obra txikietarako, fatxaden konponketarako, etab. hobariak planteatu dituzte eta lurraldeen balio igoeraren zergari dagokionez, hobariak sortzea planteatu dute ezkontideen eta ondorengoen arteko transmisioetan.

cerrar Getxo Irratia que supone un costo de 500.000 euros, es decir, el doble de las ayudas que van a generarse. Respecto al impuesto de vehículos de tracción mecánica se plantea una subida general del 3,1%, excepto a determinados vehículos o motocicletas que se plantean subidas de hasta más de un 45%. Ante esto el grupo popular presente tres enmiendas a este impuesto buscando congelar las subidas, bonificaciones para vehículos híbridos y para familias numerosas. En relación al IAE no están de acuerdo con que se suba el 3,1% ya que esto va a afectar a la competitividad de las empresas que son las que deben de crear empleo, por lo que han planteado nueve enmiendas para mejorar la situación de las mismas. Reconoce que el resto de los impuestos no los suben pero que el grupo popular, vía enmiendas, plantea incorporar bonificaciones que la norma foral posibilita, bonificaciones destinadas fundamentalmente a familias numerosas ya que en este aspecto el equipo de gobierno no tiene en cuenta la situación económica de las mismas sino únicamente el valor catastral de sus viviendas, lo que hace que esas subvenciones no sean operativas. También recuerda que se comprometió el equipo de gobierno a tener una consideración con los propietarios de los edificios del Puerto Viejo y que pese a haber pasado un año nada se ha hecho. En relación al ICIO plantean bonificaciones a pequeñas obras, arreglos de fachadas, etc. y en relación al impuesto del incremento del valor de los terrenos plantean crear bonificaciones en las transmisiones entre cónyuges y descendientes.

Maitane Nerekan andreak, Bildu

Maitane Nerekan, en nombre de Bildu,

alderdiaren izenean, adierazi du larria iruditzen zaiola alderdi popularrak benetakoa ez dela dakien informazioa zabaltzea eta hiritarrengan kezkak eragitea. Esan du ez dutela EAJ alderdiarekin inolako isilezko itunik adostu, negoziazio guztiak ezagutzera eman baitira. Bildu alderdiak OHZ aldatzea positiboki baloratu du ez delako zerga igotzen eta bere eskaeraren ondorioz, EAJ alderdiak barneratu ondoren, aurreneko aldiz 250.000 euroko laguntza-funtsa sortuko da gehien gutxietsitako sektoreen mesederako. Alderdi popularrak ordenantza fiskalei egindako zuzenketei dagokienez, horiek aztertu dituzte eta uste du egituratuko diren laguntzekin lortuko direla aurkeztutako zuzenketa ugarien antzeko ondorioak. Portu Zaharreko higiezinen egoerari dagokionez, uste du aurkeztuko diren laguntzekin horretan jardun ahal izango dela. Beste zergei dagokienez, aurrera pausuak eman dira progresibotasun ekonomikoari dagokionez eta trakzio mekanikoko ibilgailuen zergan KPZtik gora igo zaie zilindrada handiko ibilgailuei eta motozikletei, horien jabe izateak maila ekonomiko nabarmena adierazten baitu. EJZren igoerari dagokionez, ez die ez denda txikiei ez enpresei eragingo eta harekin gizarte gastuan erabiltzeko baliabideak sortuko dira. Bere ustez, alderdi politiko guztiek hiritarren alde lan egin behar dute eta horretarako akordioak hartu behar dituzte, alderdi politiko bakoitzak bere ikuspegi propioa duela alde batean utzi gabe, baina askotan interes orokorra bakoitzaren ikuspegiaren gainetik kokatu behar da eta kritikatu ditu eskema horiekin bat egiten ez duten alderdi politikoak, horiek hiritarrei okerreko mezuak igortzen dizkietelako , alarma eraginez,

manifiesta que le parece grave que el grupo popular difunda información que sabe que no es cierta y genera preocupación en la ciudadanía. Niega cualquier pacto secreto con el PNV, ya que todas las negociaciones se han dado a conocer. La valoración que Bildu hace acerca de la modificación del IBI es positiva porque no se incrementa el impuesto y su petición tras ser asumida por el PNV supone que por primera vez se va a crear un fondo de ayuda de 250.000 euros que beneficiará a los sectores más desfavorecidos. Respecto a las enmiendas del grupo popular a las ordenanzas fiscales, han estudiado las mismas y cree que con las ayudas que se van a articular se consiguen efectos similares a muchas de las enmiendas presentadas. En relación a la situación de los inmuebles del Puerto Viejo estima que con las ayudas que se van a presentar podrá actuarse al respecto. Respecto a otros impuestos se han realizado avances respecto a la progresividad económica y en el impuesto de vehículos de tracción mecánica se sube por encima del IPC a vehículos y motocicletas de alta cilindarada, cuya propiedad denota ya un nivel económico importante. En relación al incremento del IAE, no afecta a los pequeños comercios ni empresas y supone la generación de recursos con destino al gasto social. Opina que todos los grupos políticos deben de trabajar en beneficio de los ciudadanos y llegar a acuerdos para ello, sin perjuicio de reconocer que cada grupo tiene su propia visión pero que muchas veces el interés general tiene que superponerse a la visión de cada uno y critica las actuaciones de grupos políticos que no se ajustan a dichos esquemas y que además mandan mensajes faltos a la ciudadanía generando alarma, como el caso del

alderdi popularra bezala. Gogoratu du beste tasei eta zergei buruzko erabakiak hartzeko gelditzen direla eta uste du ezin dela murrizketarik egin gizarte eta kultur gastuan eta langile publikoei egindako murrizketen aurka azaldu da, udaletik kanpoko administrazio batetik ezarri direlako. Onartu du Getxoko Udalak dirua baduela eta egin behar duena gastuarekin bat egitea eta hura behar bezala bideratzea dela.

grupo popular. Recuerda que quedan decisiones pendientes respecto a otras tasas e impuestos y cree que no pueden realizarse recortes en gasto sociales y culturales y tampoco apoya los recortes a los empleados públicos que se imponen desde una administración ajena al ayuntamiento. Reconoce que el Ayuntamiento de Getxo tiene disponibilidades económicas y lo que debe de hacer es ajustarse y orientarse el gasto.

Agustín Ruiz jauna bilkuratik atera da.

Agustín Ruiz abandona la sesión.

Luis Almansa jaunak hitza hartu eta adierazi du sozialistek zerbitzu publikoak mantentzea defendatzen dutela eta horregatik zergen igoeren alde egiten dutela, baldin eta KPZ inguruan egiten badira. Aurkezten diren bost ordenantza fiskaletatik bik zuzeneko igoera dute, baina beste hiru zergek, bere ustez, bestelako eraginak sortzen dituzte ere. Zergen inguruko sozialisten ituna KPZ inguruan kokatzen da, %2,5 eta %2,7 artean, beraz, bere ustez EAJ eta Bildu arteko ituna (%3,1 planteatzen duena) garesti aterako zaie Getxoko bizilagunei eta ez dute horren alde egingo %2,5era jaisten ez badute. Errepikatu du Euskadiko Alderdi Sozialistaren esku egongo balitz, igoera %2,5ekoa izango litzatekeela, EAJ alderdiak beste udalerritan hitzartu duen bezala. Gogoratu du zergei dagokienez, aurreko legealdian, sozialistei esker, tasak eta zergak blokeatu zirela eta baita hainbat tasa jaitsi zela, besteak beste, zabor-bilketakoa.

Luis Almansa interviene para manifestar que los socialistas defienden el mantenimiento de los servicios públicos y por ello apoyan los incrementos impositivos siempre que se mueven en el entorno del IPC. De las cinco ordenanzas fiscales que se presentan dos tienen una subida directa pero los otros tres impuestos también estima que tienen afectaciones de manera diferente. El pacto de los socialistas en relación a los incrementos de tributos se sitúa en el entorno del IPC, entre el 2,5 y el 2,7%, por lo que estima que el pacto entre PNV y Bildu que plantea el 3,1% sale caro a los vecinos de Getxo y no lo van a apoyar a menos que lo reduzcan al 2,5%. Insiste en que si dependiera del Partido Socialista de Euskadi el incremento sería del 2,5%, tal y como han pactado con el PNV en otros municipios. Recuerda que en materia de impuestos la legislatura anterior gracias a los socialistas se congelaron las tasas e impuestos e incluso se llegaron a bajarse tasas como la de recogida de basuras.

Maitane Nerekan andreak azpimarratu du proposamenek irizpide progresiboak hartzen dituztela barne

Maitane Nerekan insiste en que las propuestas contemplan criterios progresivos y al sr. Almansa le dice que

eta Almansa jaunari esan dio ez duela ezer proposatu gehien gutxietsitako bizilagunen OHZ eta bestelako zergak ordaintzeko diru-laguntzak emateko.

nada propone acerca del fondo para subvencionar el pago del IBI y otros impuestos a los vecinos más desfavorecidos.

Andrade jaunak, alderdi popularraren izenean, berretsi egin du ez duela Getxon zergak igotzeko arrazoirik ikusten, egoera ekonomikoa eta dagoen diru-bilketa kontuan hartuta. Sortuko den funtsari dagokionez, ez dakite nola erregulatuko den eta espero du gaia osoko bilkuran aztertzea, alderdi guztiek euren ekarpenak egin ahal izateko. Gogoratu du zenbait bizilagunari trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga %50etik gora igoko zaiela eta azpimarratu du gastuari dagokionez, aurten eman den igoera bakarra lorategien gastua izan dela. Portu Zaharreko bizilagunen eskaerek, ordea, oraindik artatu gabe jarraitzen dute. Amaitzeko, esan du alderdi popularrak ez duela uneko egoeran zergak igotzea suposatzen duen akordiorik adostuko.

El sr. Andrade, en nombre del grupo popular, se ratifica en que no ven razón alguna para subir los impuestos en Getxo en base a la situación económica y de recaudación existente. En relación al fondo que se va a crear nada se sabe de cuál va a ser su regulación y espera que lo traigan al pleno para que se puedan hacer aportaciones por todos los grupos. Recuerda que el impuesto de vehículos de tracción mecánica a algunos vecinos se les sube hasta más del 50% e insiste en que en relación al gasto, el único incremento que se ha producido este año es el gasto en jardines, mientras que se sigue sin atender las demandas de los vecinos del Puerto Viejo. Finaliza manifestando que el grupo popular no va a llegar en la situación actual a ningún acuerdo que suponga una subida de impuestos.

Roberto Martín bilkuran sartu da.

Se incorpora a la sesión Roberto Martín.

Luis Almansa jaunak berretsi du ordenantza fiskalak EAJ alderdiarekin hitzartzen ari diren udalerrietan horiek %2,5 eta 2,7 artean igotzen ari direla, beraz, Bildu alderdiarekin adostutako ituna garesti atera zaie Getxoko hiritarrei. Bere ustez, aipatutako laguntzak sortzearen eraginez, akordioa edulkoratzen ari dira Bildu oker dagoela ohartu delako. Bere ustez, familiei dagokienez, erabaki zuzena ordenantzan dagozkien hobariak sartzea izango zen eta ez laguntza moduan izapidetzea.

Luis Almansa se ratifica en que los municipios en que están pactando las ordenanzas fiscales con el PNV se están incrementando entre 2,5 y un2,7% por lo que el pacto con Bildu ha salido caro a los ciudadanos de Getxo. Opina que con la creación de las ayudas que manifiestan están edulcorando el acuerdo porque se ha dado cuenta Bildu de que se han equivocado. Opina, en relación a las familias, que lo correcto habría sido incorporar en la ordenanza las bonificaciones correspondientes y no tramitarlas como ayudas.

Ana Helguera andreak hitza hartu eta adierazi du Bildu ez dagoela oker,

Ana Helguera interviene para indicar que Bildu no se ha equivocado ya que

ordenantzak bakarrik onartu ditzake foru arauak babestutako hobariak eta funts honen xedeko laguntzek xede zabalagoak izango dituzte, besteak beste, hipoteka kaleratzeak, aterarazteak, etab. Gogoratu du ere, %3,1 irailera arteko urte arteko KPZ dela eta urte arteko beste aldi bat aukeratu dutenek igoera hori etorkizuneko ekitaldietako igoeretara pasako dutela. Andrade jaunak ekarritako datu ekonomikoei dagokienez, udalaren egoera ekonomikoari buruzkoak, horien benetako edukia esplikatu du.

la ordenanza sólo puede admitir las bonificaciones que están amparadas por la normativa foral y las ayudas a las que va a dirigirse este fondo que se va a crear van a tener unos destinos más amplios como pueden ser afectados de deshaucios hipotecarios, desalojos, etc. Recuerda, también, que el 3,1% es el IPC interanual hasta septiembre y que aquellos que han adoptado otro periodo interanual pasarán ese incremento a las subidas de futuros ejercicios. En relación a los datos económicos que ha aportado el sr. Andrade respecto a la situación económica del ayuntamiento, explica el contenido real de los mismos.

Maitane Nerekan andreak erreklamatu du Bildu alderdiari dagokiola oker dauden ala ez erabakitzea eta %2,5eko igoera egin den udalerrietan ikusi beharko litzatekeela zer gertatzen den gainontzeko zergekin. Alderdi Popularrari adierazi dio ez dagokiola udalari bankari izatea eta alderdi guztien artean gehiago hitz egin behar dela akordioak hartzeko, eta baita gastua birbideratzea ere, esaterako; Getxo Irratia, etab. Horrez gain, ez du trabarik ikusten ordenantza edo laguntzak araupetzen dituen deialdia osoko bilkuran eztabaidatzeko. Onartzen du KPZtik gorako igoera egin zaiola luxuzko zenbait motozikletari eta ibilgailuri, eta horrekin erabat ados daude. Amaitzeko, gogoratu dio PP alderdiari igo egin den gastu bakarra lorategiena izan dela esaten duenean, besteak beste, iraileko osoko bilkura batean kontratua luzatzearen alde egin zutelako, hots; Bildu alderdiak aurka egin zion luzapena.

Maitane Nerekan reclama que corresponde a Bildu decidir si están equivocados o no y que donde se ha incrementado el 2,5% habría que ver qué pasa con todo el resto del entorno impositivo. Al grupo popular le indica que no corresponde al ayuntamiento jugar a banquero y que es necesario dialogar más entre todos los grupos para llegar a acuerdos, e incluso a reorientar el gasto como el caso de Getxo Irratia, etc. Tampoco ve problemas a que la ordenanza o convocatoria que regule las ayudas se debata en el pleno. Reconoce que ha habido una subida superior al IPC a determinadas motos y vehículos de lujo, lo cual les parece correcto. Finaliza recordando al PP que cuando indica que el único gasto que se ha incrementado es el de jardines se debe a que entre otras razones, ellos apoyaron la prórroga del contrato en un pleno en septiembre, prórroga a la que Bildu se opuso.

Andrade jaunak esan du bere ustez arazoa ez datzala norbait oker egotean edo ez egotean, baizik eta berak

El sr. Andrade indica que en su opinión no estima que alguién se haya equivocado sino que sus críticas se

kritikatu nahi duena zera da: proposamenak ez direla zuzenak eta egin behar dena gastua birbideratzea dela.

refieren a que las propuestas les parecen equivocadas y que lo que procede es reorientar el gasto.

Almansa jaunak berretsi du Bildu oker dagoela eta aipatutako jarduera garesti aterako zaiela Getxoko hiritarrei. Era berean, arreta deitzen dio gobernu taldea izateak Bildu defendatzen duena eta errepikatu du sozialistekin hitzartutako ituna %2,5eko igoerarekin eman daitekeela. Amaitzeko, alderdi popularrari kritikatu dio, alde batetik esaten duelako ez direla zergak igo behar eta bestalde, BEZa, unibertsitate tasak, etab. igo dituelako.

El sr. Almansa se ratifica en que Bildu se ha equivocado y que dicha actuación les va a salir caro a los ciudadanos de Getxo. Asimismo, le llama la atención que sea el equipo de gobierno el que defiende a Bildu e insiste en que el acuerdo con los socialistas se puede dar con un 2,5% de incremento. Finaliza criticando al grupo popular, que manifiesta por un lado que no hay que subir impuestos y que por otro lado haya incrementado el IVA, las tasas universitarias, etc.

Alkate jaunak hitza hartu du eta Almansa jaunari esan dio EAJ alderdiak ez duela Bildu defendatzen, adostutako akordioa baizik, progresibotasunean eta justizia sozialean oinarrituta, eta Bilduri zoriondu dio akordioaren alde egiteagatik. Alderdi popularrari bere inkoherentziarengatik kritikatu dio lorategien gastuari egindako kritika dela eta, kontratuaren luzapenaren alde egin baitzuten eta zuzendu dio, irratiaren kostua ez baitira 500.000 euro, diru-kopuru hori Komunikazio Sailaren gastu osoa baita. Amaitzeko esan du udalak ekonomia egoera ona duela, besteak beste, ez direlako alderdi popularreko irizpide ekonomikoak jarraitu, gobernatzen ari diren udalerri ugaritan zailtasun ekonomiko larriak izaten ari baitira, Valentzia esaterako.

El sr. Alcalde interviene para manifestar a Almansa que el PNV no defiende a Bildu sino al acuerdo alcanzado que se basa en la progresividad y en la justicia social, felicitando a Bildu por su disposición al acuerdo. Critica al grupo popular su incoherencia respecto a la critica del gasto en jardines cuando apoyaron la prórroga del contrato y le corrige, en el sentido de indicar que el coste de la radio no son 500.000 euros, porque ese coste es el total de Área de Comunicación. Finaliza manifestando que la buena situación económica del ayuntamiento se debe, entre otras razones, a que no se han seguido los criterios económicos del grupo popular ya que en muchos municipios donde han gobernado están en una situación de graves dificultades económicas como Valencia.

Ondoren, Andrade jaunak zuzenketak irakurri ditu eta horiek bozkatu dira.

A continuación se procede a dar lectura a las enmiendas por parte del sr. Andrade y a la votación de las mismas.

Bozkatu ondoren atzera bota dira

Sometidas a votación son rechazadas

34648, 34651, 34653, 34654, 34656, 34658, 34660 eta 34662 erregistro zenbakia duten zuzenketak, 9 aldeko boto, PP; 14 aurkako boto, PNV eta Bildu eta abstentzio 1, PSE-EE lortzeagatik.

las enmiendas con número de registro 34648, 34651, 34653, 34654, 34656, 34658, 34660 y 34662 al obtener 9 votos a favor, PP; 14 votos en contra, PNV y Bildu y 1 abstención del PSE-EE.

34665 eta 34668 zenbakidun zuzenketak atzera bota dira 10 aldeko boto, PP eta PSE-EE eta 14 aurkako boto, PNV eta Bildu lortzeagatik.

Las enmienda 34665 y 34668 son rechazadas al obtener 10 votos a favor, PP y PSE-EE y 14 votos en contra, PNV y Bildu.

Ondoren, proposamena bozkatu da, hurrengo emaitza lortuz: 14 boto alde, PNV, Bildu, 9 boto aurka PP, abstentzio 1, PSE-EE.

A continuación se procede a votar la propuesta obteniendo el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, Bildu, 9 votos en contra PP, 1 abstención, PSE-EE.

Horrenbestez, Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki zen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

1.- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behineko izaeraz onartzea, bere espedientean sartutako testuek jasotako terminoetan; aldatutako testuek 2013ko urtarrilaren 1ean hasiko dira ondorioak sortzen, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15 eta 16. artikuluetan ezarritakoa betez.

1º.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto de Bienes Inmuebles, en los términos que se contienen en los textos incorporados al expediente de su razón, cuyos textos modificados surtirán efectos a partir del 1 de enero de 2013 en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

2.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren aipatutako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, 30 egun baliodunekoepean egongo dira udaletxeko iragarki-taulan ikusgai honako behin-behineko erabakia eta eragindako Ordenantza Fiskalaren arauen idazketa berria, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

2º.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de las normas de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las

reclamaciones que estimen oportunas.

3.- Jendaurrean jartzeari dagokionez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarriko da eta aldizkari horretan dagokion argitalpena egiten den hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epea; jendaurrean jartzeari buruzko iragarkiak hedapen handiena duten hedabideetako baten ere argitaratuko dira.

3º.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del correspondiente anuncio en el referido boletín, publicándose además anuncios de la exposición pública en uno de los diarios de mayor difusión.

Raquel González aretotik atera da.

Sale del salón Raquel González.

**124.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA, 2013 URTEA.**

**124- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.**

Proposamena irakurri ondoren, Andrade jaunak alderdi popularreko zuzenketak irakurri ditu, hurrengo emaitzarekin:

Tras darse lectura a la propuesta se dan lectura a las enmiendas del grupo popular, por parte del sr. Andrade con el siguiente resultado:

34673 eta 34677 zenbakidun zuzenketak atzera bota dira 8 aldeko boto PP, 14 aurkako boto, PNV, Bildu eta abstentzio 1, PSE-EE lortzeagatik.

